# Afrikako errealitatea erakutsiko du Montehermosok, argazki eta graffitien bitartez

**Fill in Culture kolektibo artistikoaren, Kike Gómez prentsa-argazkilariaren eta Manuel Iradier elkarte afrikanistaren baterako proiektua da #KONTRASTAFRIKA**

**2017ko azaroaren 24tik 2018ko urtarrilaren 7ra bitartean egongo da zabalik erakusketa**

Argazki eta graffitien bitartez, Afrika kontinenteko errealitatea erakutsiko du Montehermoso kulturuneak, Fill in Culture kolektibo artistikoaren, Kike Gómez prentsa-argazkilariaren eta Manuel Iradier elkarte afrikanistaren baterako proposamena den # KONTRASTAFRIKA proiektua dela medio. Afrika kontinentean, zenbait giza eskubide baliatzeko orduan, bizi duten ahultasun-egoeraren inguruan Gasteizko biztanleak sentsibilizatzea da proiektuaren helburu nagusia.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eta Montehermoso kulturuneak batera egindako "Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa" 2017ko deialdi publikoan hautatutako lana da #KONTRASTAFRIKA proiektua —18.000,00 euroko zuzkidura zuen deialdi horrek, guztira—.

Bai Garapenean Laguntzeko Zerbitzuan, bai Montehermoso kulturunean, uste izan dute sorkuntza artistikoa, bere adierazpide ugariekin —sorkuntza plastikoa, ikus-entzunezkoak, antzezte-arteak…—, berebiziko tresna izan daitekeela agerian jartzeko zein egoeratan dauden giza eskubideak gaur egungo munduan. Testuinguru horretan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala erreferentziatzat harturik —eta abenduaren 10eko ospakizuna—, GGKEk egiten duten lana zabaldu eta herritarren sentsibilizazioa ahalbidetuko zuen sorkuntza artistikoko proiektu bat —giza eskubideak babestu eta aldezteko nazioarteko elkartasunaren alorreko gizarte-eragileak eta hiriko kultur eragileak elkarlanean jarriko zituen proiektua— hautatzeko deialdia abian jarri zuten Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eta Montehermoso kulturuneak 2013an.

"*Deialdiaren helburua da munduan giza eskubideak zertan diren gogoeta eta azterketa kritikoa egiteko marko bat sortzea, eta horretarako kultura eta arte adierazpide garaikideak erabiltzea. Kontzientziak kitzikatzea da asmoa, arteak sortzen dituen emozioak eta sentipenak baliatuz*", nabarmendu du Lankidetzako zinegotzi Jaione Aguirrek.

# Montehermoso expone a través de la fotografía y graffiti la realidad del continente africano

**# KONTRASTAFRIKA es un proyecto conjunto entre el colectivo artístico Fill in Culture, el fotoperiodista Kike Gómez y la Asociación Africanista Manuel Iradier**

**La muestra estará abierta el público del 24 noviembre del 2017 al 7 de enero de 2018**

Montehermoso expondrá a través de la fotografía y graffiti la realidad del continente africano, a través del proyecto **#KONTRASTAFRIKA** una propuesta conjunta del colectivo artístico Fill in Culture, el fotoperiodista Kike Gómez y la Asociación Africanista Manuel Iradier (AAMI) de Vitoria-Gasteiz. El objetivo principal de este proyecto es sensibilizar a la población de Vitoria-Gasteiz sobre la **situación de vulnerabilidad** en el ejercicio de determinados **Derechos Humanos en el continente africano**.

El proyecto #KONTRASTAFRIKA es el trabajo seleccionado dentro de la **convocatoria pública "Derechos Humanos y Creación Artística 2017**, realizada conjuntamente por el Servicio de **Cooperación al Desarrollo** y el **Centro Cultural Montehermoso**, dotado con un total de 18.000,00 euros.

Desde el Servicio de Cooperación al Desarrollo y desde el Centro Cultural Montehermoso se ha considerado que **la creación artística**, en sus múltiples expresiones (plásticas, audiovisuales, artes escénicas,..) puede ser una **herramienta válida para visibilizar la situación de los Derechos Humanos en el mundo** actual. En este contexto, y teniendo como referencia la Declaración Universal de los Derechos Humanos y su conmemoración el día 10 de diciembre, el Servicio de Cooperación al Desarrollo y el Centro Cultural Montehermoso en 2013 pusieron en marcha una convocatoria para la **selección de un proyecto de creación artística que promueva la difusión del trabajo de las ONGD y favorezca la sensibilización de la ciudadanía**, **mediante procesos colaborativos entre agentes sociales** ligados a la solidaridad internacional en el ámbito de la protección y defensa de los Derechos Humanos y por otra parte agentes culturales presentes en nuestra ciudad.

*"El objetivo de la convocatoria es generar un **marco de reflexión y análisis crítico** de la situación actual de los derechos humanos en el mundo, pero hacerlo **mediante prácticas culturales y artísticas** contemporáneas, en sus múltiples expresiones. Se pretende **mover conciencias** pero hacerlo **desde las emociones y sentimientos** que genera el arte"*, ha destacado la concejala de Cooperación, **Jaione Aguirre**.